

## BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3929

*EBAZPENA, 2016ko irailaren 8koa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2016ko ekitaldirako deialdia argitaratzen da.*

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2016ko irailaren 8ko bilkuran harturiko erabaki bidez, onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2016ko ekitaldirako deialdia egitea, eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onarturiko Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua p) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2016ko ekitaldirako deialdia argitaratzea. Deialdia Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onarturikoa da, 2016ko irailaren 8ko bilkuran hartu baita erabakia, eta ebazpen honen eranskin gisa bilduta dago.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 8a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

2016ko irailaren 14a, asteazkena

## ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESEN ALDETIK GARATZEN DIREN  
PRESTAKUNTZAKO ESTRATEGIA EKINTZAK EGITEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN 2016KO  
EKITALDIRAKO DEIALDIA.

Lana duten langileei lehenetasunez zuzendutako enplegurako lanbide-heziketa funtsezkoa da bizialdi osoko prestakuntza ziurtatzeko, langileak eta enpresak ezaguera oinarrian duen gizartera egokitzeko eta langileen gaitasun profesionalari eusteko Europako Enplegurako Estrategiaren esparruan garatzen diren produkzio-prozesuek izan ditzaketan aldaketen aurrean.

Prestakuntza, langileei lan-bizitzan beharko duten kualifikazioa emateaz gain, lehenetasunezko balio estrategiko bat da aldaketa teknologiko, ekonomiko eta soziala dakarten prozesuetan, eta, hori dela-eta, funtsezkoa da enpleguaren egonkortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak– Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dizkio enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketako azpisistema. Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, beste zenbait funtzioen artean, enplegu-programen, enplegurako prestakuntzaprogramen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudeaketa. Egiteko horiek barne hartzen dute dagozkion diru-laguntza deialdiak onartu eta izapidetzea, hala ezarrita baitago 82/2012 Dekretuak onarturiko erakunde autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan.

Halaber, Euskadin enplegurako prestakuntza profesionala agintzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren 9. artikuluan xedatzen denez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa programatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko eskumena duen organoa.

Aipatutako Dekretuaren 21. artikulua, enplegurako beste prestakuntza-ekimenen artean, enpresek beren langileentzat programatutako prestakuntza arautzen du, eta, aurreikusten duenez, hobarien sistemaren bidez finantzatutako prestakuntza osatze edo ordezte aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntzetarako dei egin ahal izango du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ekintza horiek enpresaproiektuari zuzenean lotutakoak direla ulertuta.

Helburu hori dute erabaki honen bidez onartzen den deialdiaren babespean finantzatzen diren prestakuntza-ekintzek. Honela, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei beren langileen eskumenak eta kualifikazioak hobetzeko prestakuntza-ekintzak programatzeko aukera ematen zaie.

Bestalde, Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbide arteko Akordioa eta, horren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Etengabeko Prestakuntzarako Hiruko Akordioa sinatzearen ondorioz (horren bidez Eusko Jaurlaritzak bere egiten zuen gizarte-eragileek erabakitako eredia eta zehaztu egiten ziren alderdiek onetsiriko betekizunak), Hobetuz-Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa sortu zen, honako helburu hauek betetzeko: EAEn lanean ari diren langileen prestakuntza kudeatzea eta zuzentzea, enpresen, langileen eta ikastetxeen artean etengabeko prestakuntzarekiko interesa piztea, eta prestakuntza hori ahalik eta gehien zabaltzeko eta ahalik eta eraginkortasun handiena izateko baldintzak sustatzea.

Esparru horretan Hobetuz fundazioak betetzen duen eginkizuna kontuan izanik, deialdi honetan parte har dezan aurreikusten da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaile gisa, laguntzen kudeaketan eta ordainketan.

Horregatik guztiagatik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2016ko irailaren 8ko bilkuran harturiko erabaki bidez, onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2016ko ekitaldirako deialdia, honako hauei jarraiki:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beren langileen gaitasun eta kualifikazioak hobetzeko programaturiko prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako estrategia-ekintzak) garatzeko laguntza ekonomikoen 2016. urterako deialdia egitea.

Jarduera ekonomikoren bat gauzatzen duen edozein entitate da enpresa, haren izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein direla ere.

Estrategia-ekintzak dira enpresaren proiektuari zuzenean lotuta egonik premien diagnostiko batean edo antzeko dokumentu batean, aurkezturiko ekintzen eta horiek hartuko dituzten langileen lehentasunaren adierazgarri den batean, jasagarriak direnak.

2.– Deialdi hau finantzatzeko erabiliko diren baliabide ekonomikoak 4.300.000 euro izango dira gehienez, eta horietatik 2.150.000 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 2.150.000 euro, aldiz, 2017ko konpromiso-kredituari dagozkio.

Guztira emango diren laguntzen bolumenak ez du gaindituko aipatutako kopurua edo hori eguneratetik ateratzen dena, baldin eta indarreko legeriaz bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira; eta hala bada, zirkunstantzia hori argitara eman beharko da EHAAn, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman ere.

Deialdirako erabiliko diren baliabide ekonomiko guztietatik, 4.4 artikuluan xedatzen den moduan, 860.000 euro erabiliko dira SCS0108 eta SCS0208 profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien prestakuntza-ekintza egiaztagarriak egiteko (pertsonei arreta soziosanitarioa etxean ematea eta mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan ematea, hurrenez hurren), betiere autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek gauzatzen badituzte. Helburu horrekin erabiltzen ez diren kopuruak deialdi honen babespean emango diren gainerako diru-laguntzen finantzaketari gehituko zaizkio.

3.– Deialdi honetan bilduriko laguntzak ez dira bateragarriak izango prestakuntza-ekintza berak egiteko laguntzen onuradunek jaso ahalko dute beste edozein diru-laguntza publikorekin.

4.– Dena den, deialdi honetan bilduriko diru-laguntzak etengabeko lanbide-prestakuntzako estatuko egungo ereduaren barruan aurreikusiriko hobariekin osagarriak direla bermatuko da.

– Horri begira, estatuko hobari-sisteman agortu beharko dute enpresek ekitaldirako kreditu erabilgarria, eta bestela, agortu gabeko kredituaren kopurua azken diru-laguntzatik deskontatuko da.

– Gainera, egikaritzeko diru-laguntza eskatzen duten ekintzek estatuko ereduaren hobaririk jasotzen ez dutela bermatu beharko dute enpresa eskatzaileek.

Bikoiztasunak eta prestakuntza-ekintzen gainfinantzaketa saihesteko, deialdi honetan eskatzen dizkieten puntu guztiak egiaztatu beharko dituzte eskatzaileek.

5.– Lehia-, publikotasun- eta objektibotasun-printzipioak kontuan izanda emango dira laguntza horiek.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Deialdi honetako laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lantokietarako sustatzen diren prestakuntza-ekintzei aplikatuko zaizkie.

2.– Deialdi honetan bildurikoaren arabera enpresa eta enpresa taldeak dira laguntzen onuradun, eta haietako langileek parte har dezakete prestakuntza-ekintzetan.

3.– Honako kolektibo hauek ere diru-laguntzak jaso ahalko dituzten prestakuntza-ekimenetan parte hartzeko aukera izango dute:

1) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide diren langileak, Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) kotizatzen dutenak, elkarte horietako estatutuek hori xedatzen dutenean.

2) Enpresari zuzenean loturiko langileak eta Legearen arabera besteren kontura kontratatu ezin direnak, nahitaez Langile Autonomoen Araubide Berezian (administratzaileak, senitartekoak) kotizatu behar dutenak.

3) Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Araubide Berezira (GSNAB) edo itsasoko langileen Araubide Berezira bilduriko langileak.

4) Langile autonomoak.

5) Landun ez direla ere, honako egoera hautakoren batean daudenak:

– Denbora partzalean lan egiten duten langileak (finko aldizkakoak), lanik egiten ez duten aldietan.

– Prestakuntzaldian daudenean langabeziara igarotzen diren langileak.

– Enplegu-etenaldietan enplegu-erregulaziora bilduriko langileak.

Salbuespen gisa, nazioartekotze-prozesuetan sartuta dauden enpresen kasuan, eta betiere behar bezalako justifikazioarekin, laguntzaren enpresa onuradunarekin loturiko enpresei dagozkien langileek parte hartu ahalko dute finantzaturiko prestakuntza-ekintzetan. Horri begira, hirugarren herrialdeetan benetan ezartzeko prozesuak nazioartekotze-prozesuak dira.

5.– Finantzaketa jaso ahalko dute, 2016. urteko deialdi honetan, 2016ko urtarrilaren 1etik 2017 urteko ekainaren 30era bitarte garatzen diren prestakuntza-ekintzak. Minimis erregelari sar ezin daitekeen diru-laguntza bat bada (1407/2013 Erregelamendua), eskaera egin ondoren eman behar zaio hasiera (Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 6. artikulua eragin pizgarria).

5.– Deialdi honetako 9.II artikuluan ezarritako irizpideen arabera, gutxienezko 30puntu balorazioa merezi duela egiaztatzen ez duen aurkezturiko ekimenik ez da finantzaturiko.

3. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak.

1.– Deialdi honi dagokionez, prestakuntza-ekintza irakasteko eta ikasteko prozesua da, enpresaren prestakuntza-proiektuaren barnean (Prestakuntza Plana) hartzen dena eta helburu, eduki eta iraupen sistematizatuak dituen, parte-hartzaile guztientzat erkideak.

Ez dira finantzatuko nagusiki prestakuntza-prozesu (irakaskuntza-ikaskuntza) bat garatzea bilatzen ez duten ekintzak, helburutzat enpresaren produkzio-prozesuarekin zuzenean loturiko gaitasun eta kualifikazioak hobetzea duen prestakuntza-prozesu bat, hain zuzen ere.

2.– Orokorrean, prestakuntza-ekintzek, hala banakakoek nola taldekakoek, gutxienez 6 ordu eta gehienez 270 iraungo dute parte-hartzaile bakoitzeko. Muga horiek salbuetsi ahal izango dira, betiere horren beharra egiaztatzen baldin bada. Prestakuntzako jarduerak egunean gehienez 8 ordu iraungo dute.

3.– Modalitate hauetako batean eman behar dira prestakuntza-ekintzak: presentziala, teleprestakuntza edo mistoa.

a) Prestakuntza presentzialtzat jotzen da, ikasgela batean irakasleek ikasle talde bati ezaguera berak eta aldi berean transmititzen dietenean, edozein motatako baliabide didaktiko erabilia.

b) Teleprestakuntzatzat jotzen da parte-hartzaileak ikaskuntzaren erritmoak bere denborara egokitzen dituen; horretarako, prestakuntza-prozesua egingo den tokiaz gain, tutore/irakasleak izango ditu, zalantzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko. Modu horretan, erabilitako materialen edukiak osatu edo sendotuko ditu.

Behar bezala arrazoituko da ekintzarako proposatutako teleprestakuntzako ordu kopurua.

b.1.– Teleprestakuntzarako, ikaskuntza sistematizatua dakarten euskarri didaktikoak erabili behar dira, eta, nahitaez, tutorearen laguntzarekin osatuko da.

b.2.– Deialdi honi begira, teleprestakuntza izango da Baliabide Etxeetan emandako prestakuntza. Baliabideetako Ikastetxetzat hartuko da banakako ekipamendu didaktikoa duen instalazioa; parte-hartzaileak hara joaten dira, hainbat euskarriren bidez prestakuntza eskuratzeko eta, han, beren zalantzak argitzeko tutoretza-motaren bat edukiko dute.

b.3.– Prestakuntza-plataformen gutxienerako ezaugarriak:

1) Prestakuntza gauzatzeko onuradunek erabiltzen duten teleprestakuntza-plataformak honako baldintza hauek bildu beharko ditu:

a) Prestakuntza-proiektu bat eduki behar du, ikasteko metodologia, jarraipena eta ebaluazioa zehaztuta.

b) Lineako eskuliburu bat eduki behar du ikaslearentzat, plataformaren eta ikaslearen beraren oinarritzko eragiketen funtzionamenduari buruzkoa, lineako prestakuntzaren jarraipena egiteko. Eskuliburua deskargatu eta off-line kontsultatu ahalko da.

c) «Online» edo lineako ikaskuntza-programa bat eduki behar du, ikasleentzako prestakuntza kudeatzeko eta bermatzeko ahalmen nahikoarekin; gainera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

– Arau tekniko aplikagarrian adierazitako fidagarritasun-, segurtasun-, irisgarritasun- eta interaktibitate-mailak biltzea.

– Erabiltzaile posible guztiei aldi berean sartzea ahalbidetu behar die, ikastaldiaren etapa guztietan berdin atxikiko den plataformaren banda-zabalera ahalbidetuta.

d) Plataforma erabiltzeko lizentzia egokiak eduki behar ditu.

e) Ez du inolako publiziterik eduki behar. Logotipoa eta fabrikatzailearen copyrighta ez dira publizitatetzat hartuko.

f) Edukiak editatzea eta aldatzea.

g) Astean, 7 egunez eta 24 orduz erabilgarri izatea.

2) Honako komunikazio-tresna hauek ere eduki beharko ditu:

a) Foroak: foro anitzak eta aldiberekoak ireki, itxi eta kategorizatze aukera, eta gutxienez 4 Mbs-ko fitxategiak igotzekoa.

b) Txatak: prestakuntza-ekintza bakoitzeko gutxienez txat-kanal bat irekitzea.

c) Mezu elektronikoak: tutoreak jasotako mezu guztiak antolatze eta etiketatze aukera izango, baita artxibo bat baino gehiago eransteko aukera ere.

d) Ekitaldi-egutegia: egutegi bat behar da, ikastaldiak hartzen dituen hilabeteak bilduta, pertsonalizatua eta interaktiboa.

e) Informazio-gunea: tutore eta ikasleek aukera izango dute editatzeko ikastaldiari buruzko informazioa, albisteekin eta webguneekin lotutakoa.

f) FAQak: galdera ohikoenei buruzko informazioa.

g) Lineako erabiltzaileak: etengabe ikusi ahal izango da zein diren konektatuta dauden ikasleak.

h) Lantaldeak: egoki irizitako lantalde guztiak sortzeko aukera.

i) Kalkulaturiko denborekin ebaluazio objektiboak sortzeko aukera.

3) Plataforma administratzeko, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Prestakuntza-ekintzaren interfazea, non Eusko Jaurlaritzak, Lanbidek eta Hobetuzek adizera emango baitute jardueraren finantzaketak izaera publikoa duela.

b) Babeskopiak aldizkakotasun nahikoa izango du, sistema eroriz gero datu guztiak berreskuratuko direla bermatzeko.

c) Ikasleen eta egiten dituzten jardueren erregistroak, eta txostenen edizioa.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Hobetuzi –erakunde horren entitate laguntzaile gisa– baimena ematea, dagokion klabearen bidez, prestakuntza-jarduera guztien kontrola eta jarraipena burutu dezaten.

e) Plataformaren kudeaketa-gida bat edukitzea.

f) Arazoak konpontzeko laguntza teknikoa, 24 orduan erantzuteko ahalmenarekin.

g) Bideoko, audioko eta bit-mapen irudiko formatuei euskarria ematea, multimedia formatuan edukiak eskaintzeko modua izateko ikaskuntza- eta ebaluazio-jardueretan.

4) Prestakuntza-ekintza bakoitzaren programazioa garatzen duten prestatzaileen jardunaren plangintza izan beharko du erakunde onuradunak.

b.4.– Teleprestakuntzako modalitatean prestakuntza ematen duten tutore-prestatzaileen bete-kizunak eta funtzioak:

Teleprestakuntzako modalitatean prestakuntza ematen duten tutore-prestatzaileek prestakuntza edo esperientzia beharko dute izan modalitate horretan.

Teleprestakuntzako modalitatearen jarraipena eta kalitatea bermatzeko, 10 orduetik gorako iraupena duten prestakuntza-ekintzen kasuan, 30 ikasleko, astean 10 orduko gutxienerako dedikazioa ezarriko zaio tutore-prestatzaileari prestakuntza-ekintzaren plangintzan.

Dena den, eta 10 orduetik beherako prestakuntza-ekintzei dagokienez, tutore-prestatzailearen dedikazioa ikasleko gutxienez 20 minutukoa izango dela bermatuko da.

Parte hartzen duten 70 ikasleko tutore bat izan beharko da gutxienez.

Tutore-prestatzailearen funtzioak honako hauek izango dira gutxienez:

a) Prestakuntza-taldeko ikasleen harrera plana garatzea prestakuntza-ekintzaren ezaugarri espezifikoaren arabera.

b) Ikasleak orientatzea eta gidatzea jarduerak egitean, materialak erabiltzean eta ikaskuntzako plataforma birtualaren tresnak erabiltzean prestakuntza-ekintzetan aurreikusitako ahalmenak eskuratzeko.

c) Ikasleen partaidetza sustatzea gogoeta- eta debate-jarduerak proposatuz, banakako zereginak eta talde-lana antolatuz eta ezarritako komunikazio-tresnak erabiliz.

d) Parte-hartzaileek egindako jardueren jarraipena eta balorazioa egitea, zalantzak argituz eta arazoak konponduz, ikaskuntzako plataforma birtualaren tresnen bidez, aurreikusitako plangintzari atxikita.

e) Parte-hartzaileak ebaluatzea, ezarritako irizpideen arabera, eta dagozkion ebaluazio-proben antolamenduan eta garapenean parte hartzea.

f) Prestakuntza-jarduerak antolatzeko, kudeatzeko eta garatzeko ardura duten gainerako talde-ideekiko koordinazioa eskatzen duten jarduera guztietan parte hartzea.

g) Prestakuntza mistotzat jotzen da, irakaskuntza modalitate presentzialaz eta ez-presentzialaz baliatuz emandako prestakuntza denean, kasu bakoitzean beharrezkotzat jotzen den orduen ehunekoan.

4.– Prestakuntza-ekintza bakoitzaren parte-hartzaile kopurua zehazteko, eraginkortasun-irizpideak aplikatuko dira, enpresen finantza-baliabideen optimizazioa eta premia espezifikoaren estaldura bateragarri egiteko.

5.– Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntzaren kasuan, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusitako eskakizunak bete behar dituzte parte-hartzaileek. Era berean, ikastetxeak hautaketa-proba bat egingo du beharrezkoa den prestakuntza-ekintzetan. Horrela, ekintzaren probetxua ziurtatuko da, eta kualifikaziora bideraturiko ekintzen helburuak lortzeko ezinbestekoak diren alde aurreko ezagueren benetako maila finkatuko da, kasuan kasu, lanbide-kualifikazioko 2. eta 3. mailetako profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza-moduluen prestakuntzara sartzeko beharrezkoak diren funtsezko gaitasunak barne.

6.– Langile batek gehienez 270 prestakuntza-ordu jaso ditzake, salbu eta ekintza bakarrean parte hartzen bada eta ekintza horren muga salbuespentzat hartu bada, artikuluko honetako 2. idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera.

7.– Enpresek beraiek antolatu ahal izango dute beren langileen prestakuntza, eta beraien baliabideak erabili prestakuntza emateko, edo, bestela, baliabide horiek kontratatu ahal izango dituzte.

Enpresa-taldeek kasuan, bakoitzarentzat banaka antolatu ahal izango da prestakuntza, edo haietako batzuk edo guztiak elkartuta. Elkartuz gero, taldeko enpresetako edozeinek antolatu ahal izango du bere taldeko langileen prestakuntza, eta bere baliabideak erabili prestakuntza emateko, edo, bestela, baliabide horiek kontratatu ahal izango ditu.

Halaber, prestakuntza kanpoko entitate baten esku utzi ahal izango dute enpresek, irailaren 9ko 30/2015 Legearen 12. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki. Kasu horretan, egiaztatutako prestakuntza-entitate batek emango du prestakuntza, eta/edo aipatutako legearen 15. artikuluan aipatzen den administrazio publiko eskudunak gaitutako prestakuntza-entitateen erregistroan inskribatutako batek. Lanbide-jarduera jakin batzuetan jarduteko gaitzen duen prestakuntza emateko beste administrazio batzuek homologatutako entitateak inskribatutzat edo egiaztatutzat emango dira. Ez antolaketa ez prestakuntza ematea ezin izango dira azpikontratatu. Ez da ulertuko prestakuntzaren antolaketa kanpoko entitate baten esku utzi dela haren eginkizuna diru-laguntza ondo aplikatzeko beharrezkoak diren administrazio-izapideak egitea baino ez bada.

Enpresak prestakuntza-ekintzak egiteko kanpo-agentek kontratatzen dituenean, hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, hornitzaileen aukeraketak eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideei erantzun diela bermatzeko, kontratuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean.

8.– Prestakuntza-ekintzek barne-prestakuntza biltzen dutenean, osorik edo zati batean, ikaskuntza-prozesu sistematizatua izateko moduan diseinatu eta egituratu beharko da aldez aurretik prestakuntza hori.

9.– Kualifikazio Sistema Nazionalaren Katalogo Modularrekin erlazionatutako prestakuntza-ekintzak, diru-laguntzaren eskabidea aurkezteko unean Euskal Autonomia Erkidegoan Prestakuntza Zentro edo Erakundearen Estatuko Erregistroan egiaztatutako prestakuntza-zentro publiko edo pribatuek eman beharko dituzte, edo Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatutakoek, Profesionaltasun Ziurtagiriak lortzeko prestakuntza emateko.

Zentroetako instalazioetan burutuko dira prestakuntza-ekintza horiek.

Teleprestakuntza-modalitatean profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera zuzendutako prestakuntza-ekintzak emateko, zentroa EAetik kanpo kokatuta badago, lankidetzaren hitzarmen bat izan beharko du EAEn kokatuta dagoen eta ziurtagiriak modalitate presentzian emateko egiaztatuta dagoen prestakuntza-erakunderen batekin.

4. artikulua.– Laguntzen onuradunak.

1.– Deialdi honetako laguntzak 2. artikuluko enpresek eskatu ahalko dituzte, betiere 35 langileko edo langile gehiagoko plantilla bat badute.

Salbuespen gisa plantilla horretara iristen ez diren enpresek aurkezturiko planak subentzionatu ahalko dira. Kasu horietan, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak, Hobetuzek proposatuta, prestakuntza-plana burutzeko duen gaitasuna aztertuko du eta arrazoiak azalduta ebatziko du.

2.– Plantillan 50 langile edo gehiago dituzten enpresa taldeek ere laguntzak eskatu ahalko dituzte. Enpresa-taldetzat joko dira sozietate guztietan haien artean gutxienez lotura hauetako bat dutenak:

- a) Enpresa batek beste enpresa baten akzionisten edo bazkideen boto-eskubideen gehiengoa du.
- b) Enpresa batek beste sozietate baten administrazio-, zuzendaritza-, edo kontrol-organoko kideen gehiengoa izendatu edo errebokatze eskubidea du.
- c) Enpresa batek beste batean eragin dominatzailea izateko eskubidea du, harekin sinatutako kontratu baten edo bigarren enpresaren estatutu-klausula baten ondorioz.



d) Enpresa bat bestearen akzionista edo bazkidea da eta, berak bakarrik, kontrolatzen ditu haren akzionisten boto-eskubideen gehiengoa, bigarrenaren beste akzionista edo bazkide batzuekin izandako akordioaren ondorioz.

Kasu horretan, taldea osatzen duten enpresetako edozein izan daiteke eskaeraren titularra.

3.– Dena den, enpresa berak ezin izango du laguntza-eskaera bat baino gehiago aurkeztu deialdi honen barruan, 4.4 artikuluan aipatutakoak izan ezik.

4.– Deialdi honen barruan 860.000 euro erabiliko dira SSCS0108 eta SSCS0208 profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien prestakuntza-ekintza egiaztagarriak egiteko (pertsonei arreta soziosanitarioa etxean ematea eta mendeko pertsoneri arreta soziosanitarioa gizarte-erakundee-tan ematea, hurrenez hurren), betiere autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek gauzatzen badituzte.

Prestakuntza-ekimen egiaztagarrietan parte hartu ahal izango dute 2. artikuluan aipatzen diren eta gaitasun-unitateren bat egiaztatzeke duten pertsonak.

Era horretako diru-laguntza bat eskatzea bateragarria izango da deialdi honetan jasotzen diren ohiko diru-laguntzetako bat eskatzearekin.

5.– Ezin izango du erakunde onuradun izan Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aipatutako egoeran dagoen ezein erakundek.

5. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Hobetuzek bere web-orrian jarriko dituen eredu normalizatuetan beteko dira eskaerak: [www.hobetuz.eus](http://www.hobetuz.eus)

2.– Eskaerak Hobetuz Fundazioaren egoitzetan aurkeztuko dira.

– Arabako Lurralde Egoitza: Dato 14-16, 3. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz.

– Bizkaiko Lurralde Egoitza: Kale Nagusia 35, 6. solairua, 48009 Bilbao.

– Gipuzkoako Lurralde Egoitza: Manterola 4, -1. solairua, 20007 Donostia.

Horretaz gain, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian aurrez ikusitako modue-tako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskaera horiek paperean aurkeztuko dira, bai eta Hobetuz Fundazioak [www.hobetuz.eus](http://www.hobetuz.eus) web-gunean deialdi honetarako eskainitako euskarri informatikoan ere. Paperean aurkeztutako datuen eta euskarri informatiko bidez aurkeztutako artean desadostasunik badago, paperean aurkeztu-tako datuak hartuko dira baliagarritzat.

3.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Eskaerak egiteko baldintzak.

Honako hauek jaso beharko dira diru-laguntza eskaeran:

1.– Eskatzailearen izen soziala, IFK, Gizarte Segurantzaren inskripzio-zenbakia, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN), sektoreko Hitzarmen Kolektiboa eta batez besteko plan-tilla deialdi hau argitaratzen den egunaren aurre-aurreko hamabi hilabeteetan. Dokumentazio hori behar bezala sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar da.

2.– Enpresa taldeko plan batean parte hartzen duten enpresa guztiek parte hartzeko konpromi-soa adierazi behar dute (2A eranskina, Hobetuzen web-orrian izango da eskuragarri).

- 3.– Aurkeztutako proiektuaren ardura hartzeko enpresak izendatu duen pertsona.
- 4.– Jarraian azaltzen diren dokumentuak ere aurkeztuko dira, baldin eta aurreko deialdietan Hobetuzen eskura utzi ez badira, edo aldatu egin badira alde zuzenetik aurkeztutakoaren aldean:
- Planaren titularraren zerga-identifikaziorako txartelaren fotokopia.
  - Ordezkararen gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioaren originala, kopia konpultsatua edo kopia (Hobetuzek konpultsa dezan).
- 5.– Halakorik izanez gero, finantzaketa jaso dezakeen prestakuntza-planean aurkezturiko ekintzak biltzen dituen prestakuntza-premiak detektatzeko azterlana edo azterketa.
- 6.– Garatu beharreko prestakuntza-ekintzak deskribatzea, lehentasunak ezarriz, hau da, ekintzak egikaritzeari dagokionez lehentasunen ordena ipiniz, ekintza bakoitzaren izena, iraupena eta parte-hartzaile kopurua adierazita, deialdi honi erantsitako inprimaki normalizatueta zehaztutako banantzea barne. Dena den, honako hauek jaso beharko dira:
- Talde hartzaileak kategoriatu edo talde profesionalen, lan-egoeraren eta Gizarte Segurantzarako afiliazio-araubidearen arabera.
  - Prestakuntza-ekintzen aurreikusitako kostua.
  - Prestakuntza-ekintzak egikaritzeko aurreikusitako egutegia eta lan-orduen kopurua.
  - Prestakuntza-ekintzak emateko aurreikusitako prestakuntza-erakundeak, tokia, instalazioak eta baliabideak.
  - Parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak.
  - Harremanetarako pertsona eta programaturiko prestakuntza-ekintzen jarraipena egiteko modua, eta jarraian prestakuntza-programak ebaluatzeko baliagarri izango diren irizpide eta metodologiak.
- 7.– 2015eko ekitaldian enpresak edo enpresek ordainduriko lanbide-prestakuntzako kuotaren urteko zenbatekoaren ardurapeko aitorpena, EAEn dauden lantokiei dagokienez.
- 8.– Erakunde eskatzailearen ardurapeko aitorpena, edozein Administrazio Publiko prestakuntza-arloan emandako diru-laguntzak itzultzeko prozedura baten eraginpean ez dagoela, edo, hala badagokio, eskatutako itzulketak egin dituela, adierazten duena.
- 9.– Erakundeak zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana egiaztatzen duen ardurapeko aitorpena, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
- 10.– Beharrezkoa bada, prestakuntzan legearen edo hitzarmen kolektiboaren arabera dagokion inbertsioa egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria, baita justifikazio-dokumentuak ere. Dokumentazio hori behar bezala sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar da.
- 11.– Lantokien zerrenda, bakoitzari buruz zer ekintzatan parte hartzeko asmoa duten, zer herritan kokatuko den, langileen eta benetako parte-hartzaileen guztizko kopurua eta ordezkaritza sindikalik baduten edo ez zehaztuta.
- 12.– Aurkezturiko ekimenaren enpresa titularraren ziurtagiri egiaztagarri eguneratuak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko eta/edo Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen dutenak.

13.– Enpresa hartzekodunen konkurtsoko egoera edo enplegu-erregulazioko egoeran dagoela frogatzen duen egiaztapena, hala badagokio.

14.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak estatuko ereduaren aurreikusitakoekiko osagarriak direnez eta diru-laguntzen/hobarien bikoiztasuna eta laguntzako prestakuntza-ekintzen gainfinantziarioa saihestearren, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non adieraziko baitu ezein kasutan ere ez dituela ekintza edo parte-hartzaile berak aurkeztu edo aurkeztuko estatuko sisteman bilduriko hobarien sistema eta jarduera bererako; horrez gain, adierazpen horretan beste administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako beste diru-sarrera osagarrien berri eman beharko du, eta horien zenbatekoa adierazi. Ondoren gertatzen den edozein aldaketa Hobetuzi jakinarazi beharko zaio, eta egoki irizitako erabakia proposatuko dio Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari.

15.– Langileen legezko ordezkartzarako informaziorako eta kontsultarako dokumentua (3A eranskina, Hobetuzen web-orrian izango da eskuragarri), behar bezala zigitatua eta sinatua.

16.– Nazioartekotze-prozesuetan sartuta dauden enpresen loturaren dokumentu bidezko egiaztapena.

17.– Ardurapeko aitortpena, kasuan kasu, eskaturiko diru-laguntzak, zenbatekoa kontua izanda, minimis erregelaren barruan sar daitezkeela adierazten duena, betiere Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua aurreikusitakoaren arabera (2013-12-24ko EBAO). Enpresa-taldearen kasuan, eta aipatutako erregelamenduaren 2-2 artikuluaaren arabera, haiek guztiak «enpresa bakartzat» hartuko dira.

18.– Kanpo-zerbitzuen kontratazioan hornitzaileen gutxienez hiru eskaintza eskatzeko bete-beharra biltzen duen ardurapeko aitortpena, kontratuen zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean.

7. artikulua.– Langileei eman beharreko informazioari eta egin beharreko kontsultari buruzko eskakizunak.

1.– Eskaera Hobetuzi aurkeztu aurretik, eskatzaileak informazioa emango dio Langileen Legezko Ordezkaritzari egikartzeko diru-laguntza lortu nahi den prestakuntza-ekintzei buruz, horretarako aurreko artikuluaaren 5., 6. eta 7. idatzi-zatietako dokumentuen kopia osoa emanaz eta eskaeraren 3A eranskina betetzeko eskatuta.

2.– Langileen Legezko Ordezkaritzak 15 eguneko epea izango du txostena egiteko, dokumentazioa jasotzen duen egunetik aurrera zenbatzen hasita. Txosten hori (3C eranskina, Hobetuzek emandako euskarri informatikoan izango da eskuragarri) enpresari eta Hobetuzi helarazi ahalko die Langileen Legezko Ordezkaritzak.

3.– Horretarako, Langileen Legezko Ordezkaritza Planean parte hartzen duten lantoki guzti-guztiek dagokiena izango da. Enpresa-batzordea/ek edo langileen ordezkariak eman behar dituzte 3A eranskinak, dauden guztien % 51n gutxienez.

Lantoki batean edo batzuetan ordezkartza sindikalik ez dagoela adieraztea ziurtagiritzat joko da xede guztietarako.

4.– Prestakuntza-ekintzak hasi aurretik, Enpresako Langileen Ordezkaritzari igorri beharko zaio prestakuntza-ekintza horietako parte-hartzaileen zerrenda.

Hiru hilean behin, prestakuntza-planaren egikaritzapenari buruzko informazioa emango diete enpresek langileen ordezkariari.

#### 8. artikulua.– Laguntza zehaztea.

1.– Ondoriozko gehieneko guztizko laguntzak ezin izango du 1,5 alditan gainditu enpresa handientzat eta 5 alditan enpresa txikiagoentzat Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen lanbide-heziketako kuotaren urteko zenbatekoa, enpresa kooperatibek izan ezik, horien langile bazkideek Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzen badute, eta gehieneko guztizko laguntza kalkulatzeko kontuan hartuko den diru-kopurua enpresak dauzkan langileen kopurua 5 langile baino gehiagoko enpresa sortu berrietarako oro har ezarritako langile bakoitzeko batez besteko hobariarekin (65 euro) biderkatzearen ondorio izango da.

Laguntza kalkulatzeari begira, Euskal Autonomia Erkidegoko plantilla titularra hartuko da kontuan.

2.– Eskatzaile bakoitzari ematen zaion diru-laguntzak gehieneko laguntzako izaera izango du eta honela zehaztuko da:

a) Ordu kopurua parte-hartzaile kopuruarekin eta dagokion moduluaren zenbatekoarekin biderkatuz.

b) Ondoren, planaren balorazio teknikoa egingo da, eta finantza daitekeen gehieneko zenbatekoaren ehuneko zehaztuko du, aurkeztutako eskaerak eta eskura dauden funtsen zenbatekoa ikusita ezartzen diren tarteak kontuan izanik.

c) Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak eman beharreko diru-laguntza guztiei erantzuteko beharrezkoak ez badira, banaketa proportzionalki egingo da betiere.

3.– Minimis erregela aplikatzen ez bada, diru-laguntza likidatzen den unean finkatuko da laguntzaren azken zenbatekoa, aplikatzekoa den erkidegoko araudian ezarritako gehieneko intentsitateak aplikatuta (I. eranskina).

#### 9. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Honako irizpide hauei jarraiki burutuko da planen balorazio teknikoa.

##### I.– Lehentasun-irizpide orokorrak:

1.– Honako ezaugarri hauetakoren bat duten prestakuntza-ekintzek lehentasuna izango dute:

a) Prestakuntza-ekintzen jatorriari dagokionez:

– Izaera estrategikoa duten ekintzak, beharren azterketaren batean oinarrituta.

– Lanaldia murrizteko, birmoldaketako edo kontratuak aldi baterako eteteke prozesuen ondoriozko ekintzak.

– Lan-munduan euskararen erabilera normalizatzeko helburua duten ekintzak.

b) Prestakuntzaren hartzaileei dagokienez:

– Enpresa txiki eta ertainetako langileen lehiakortasuna eta enplegarritasuna hobetzeko helburua izatea. Ildo horretan, lehentasuna izango dute EAEko enpresa txiki eta ertaineko aurkezturiko prestakuntza-planek, arreta berezia emanez enpresa txikiek aurkezturiko prestakuntza-planei.

c) Ekimenen nondik norakoari dagokionez:

– Metodologiarengatik, edukiarengatik edo beste edozein arrazoiarengatik Enplegurako Prestakuntzarako berritzaileak diren ekimenak.

2.– Deialdi honetan ez da lehentasunezko zat jotzen izaera generikoa eta zeharkakoa duten prestakuntza-ekintzen finantzaketa, salbu eta justifikatuta eta enpresaren jarduerarekin zuzenean lotuta dauden kasuetan.

3.– Aurkezturiko ekintzen lehentasunezko tratamendua baliatu ahal izateko, eta eskaera-inprimakietan biltzen den informazioa alde batera utzita, eskatzaileak egokitzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia aurkeztu behar du.

4.– Ekintzei lehentasuna emateko kontuan harturiko baldintzak funtsean aldatzen badira ekintza egikaritzen den bitartean, lehentasunezko izaera dela-eta lorturiko finantzaketa gehigarria berrikusi ahalko da.

5.– Atal honetan bilduriko irizpideek guztira 35 puntuko balorazioa izango dute 100 punturen gain.

II.– Kalitate- eta koherentzia-irizpideak:

1.– Aurkezturiko prestakuntza-ekintzen kalitatea eta koherentzia balioesteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Enpresaren prestakuntza-estrategia:

– Enpresak premiak aztertu eta detektatzeko azterlana egin izana, proposatutako prestakuntza-ekintzak deskribatzeko.

– Ekintza horiek enpresaren proiektuari loturiko prestakuntza-plan batean biltzea, eta inbertsio estrategiko berriei zor ahalko zaiona, enpresa barruko inbertsioak, ekipamendu berriak, sistema berrien ezarpena, merkatu berriak zabaltzea, enplegetako balioaniztasuna, eta abar.

– Enpresak hausnarketa-prozesua abian jarri izana, prestakuntza-ekintza horien lehentasuna erabakitzeke.

– Aurrez aipatutako azterlanean aurkeztutako ekintza bakoitzaren deskribapena eta kokapena.

– Ekintza bakoitzarekin lortu nahi diren helburuak.

– Prestakuntza-ekintzen ebaluazioa.

– Aurkeztutako ekintzen koherentzia orokorra.

b) Eskatzaileak proiektuan duen inplikazioa.

– Proiektua gauzatzera bideratutako baliabide propioak.

– Langileak ekintzen diseinuan inplikatzeari.

– Eraginkortasuna hornitzaileak hautatu eta kudeatzerakoan.

2.– Atal honetan bilduriko irizpideek guztira 65 puntuko balorazioa izango dute 100 punturen gain. Atal honetan gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten eskabideek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

III.– Aurreko egikaritzapen- eta betetze-maila:

Balorazio teknikoan Hobetuzek argitaratu edota kudeaturiko aurreko deialdietan eskatzaileak egiaztaturiko egikaritzapen- eta betetze-maila hartuko da kontuan, eta gehienez 10 puntuz gehitu edo murriztu ahalko da balorazio teknikoa lorturiko guztizkoaren gain, 100 puntutik gorakoa inoiz ere izango ez dena.

## 10. artikulua.– Modulu ekonomikoak.

## 1.– Prestakuntza-ekintza presentzialak.

a) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotuta ez dauden prestakuntza ekintzetan, balorazio ekonomikoa modulua hauek aplikatuta burutuko da (euro/ordu/parte-hartzaile):

Kodea	Lanbide Arloa	Kanpo Prestakuntza	Barne Prestakuntza
ADK	Administrazioa eta Kudeaketa	13	4,2
GKE	Gorputz eta Kirol Ekintzak	13	4,2
NEK	Nekazaritzakoak	13	4,2
ARG	Arte Grafikoak	13	4,2
ART	Artea eta Artisautza	13	4,2
MER	Merkataritza eta Marketina	13	4,2
ELE	Elektrizitatea eta Elektronika	13	4,2
ENU	Energia eta ura	13	4,2
EOZ	Eraikuntza eta Obra Zibila	13	4,2
POS	Kalitatea	9	4,2
POS	Erabiltzaile-mailako informatika	9	4,2
POS	Zuzendaritza	13	4,2
POS	Giza Baliabideak	13	4,2
POS	Hizkuntzak	9	4,2
POS	Laneko Segurtasuna eta Osasuna	9	4,2
FME	Fabrikazio Mekanikoa	13	4,2
OST	Ostalaritza eta Turismoa	13	4,2
EIN	Erauzketa Industriak	13	4,2
IFK	Informatika eta Komunikazioak	13	4,2
IMA	Instalazioa eta Mantentzea	13	4,2
IRP	Irudi Pertsonala	13	4,2
IRS	Irudia eta Soinua	13	4,2
ELI	Elikagaien industriak	13	4,2
ZAK	Zura, Altzariak eta Kortxoak	13	4,2
ITA	Itsasoa eta arrantza	13	4,2
KIM	Kimikoa	13	4,2
OSA	Osasuna	13	4,2
SEI	Segurtasuna eta Ingurumena	13	4,2
GKZ	Gizarte, Kultura eta Erkidego Zerbitzuak	13	4,2
EJL	Ehungintza, Jantzigintza, Larrua	13	4,2
GIM	Garraioa eta Ibilgailuak Mantentzea	13	4,2
BEZ	Beira eta Zeramika	13	4,2

Modalitate presentzialaren kanpo-prestakuntzari buruzko modulu ekonomikoak ehuneko 50era bitartean areagotu ahalko dira prestakuntza-ekintza jakin batzuen kasuan, betiere euren espezialitatea eta ezaugarri teknikoak kontuan hartuta finantzaketa handiagoa behar bada.

Aurreko paragrafoan barne hartutako ekintzen guztizko kostuak ezingo du gainditu deialdi hau finantzatzen zuzendutako funtsen guztizkoaren ehuneko 5.

b) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintzetan modulu ekonomikoa 8 eurokoa izango da.

2.– Teleprestakuntzako ekintzak.

a) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotuta ez dauden prestakuntza-ekintzetan, modulua 7,5 eurokoa izango da parte-hartzaile bakoitzeko.

b) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintzetan modulu ekonomikoa 5 eurokoa izango da.

3.– Prestakuntza-ekintza mistoak.

Prestakuntza-denbora presentzialaren ordu/parte-hartzaile kostua aurreko 1. idatzi-zatian deskribaturikoaren arabera lortuko da. Teleprestakuntzako prestakuntza-denboraren ordu/parte-hartzaile kostua aurreko 2. idatzi-zatian deskribaturikoaren arabera lortuko da. Ekintzaren guztizko kostua bi kostu partzialen batura izango da.

11. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Behin eskaerak aurkeztuta, aurkeztutakoa baino informazio gehiago eskatu ahal izango da. Hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari akatsa zuzentzeko edota aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Administrazioa, bestalde, behartuta dago eskabidearen gainean ebazpen adierazi bat hartzea eta ebazpena jakinaraztea.

2.– Hobetuzek aurkeztu diren eskaerak aztertuko ditu, eta ebazpena emango du aurkeztutako laguntza-eskaera bakoitza guztiz edo partez ukatzeko edo onartzeko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igorriko ditu proposamen horiek, hark dagokion ebazpenak eman dezan.

3.– Hobetuzek egindako proposamena aztertu ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak dagokion ebazpena emango du, eta interesdunei jakinaraziko die.

Ebazpena aldekoa bada, diruz lagunduko diren prestakuntza-ekintzak adieraziko dira, baita parte-hartzaile kopurua, ordu kopurua eta finantzaketa ere. Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduari begira, eskatzailearen inbertsio-ahaleginaren aipamena egingo du ebazpenak.

Interesdunak 10 eguneko epea izango du emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko, zuzendari nagusiak ebazpena jakinarazten duen egunetik hasita. Epe hori igarotakoan, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Era berean, ebazpena Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletako iragarki-taulan argitaratuko da, bai eta [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) eta [www.hobetuz.eus](http://www.hobetuz.eus) webguneetan ere.

4.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa jar dakioko organo horri, hilabeteko epean, interesdun bakoitzari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, jar daiteke administrazioarekiko

auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

5.– Gehienez 6 hilabetekoa izango da ebazteko eta jakinarazteko epea, eta, epe hori amaituta jakinarazpenik jaso ez bada, eskaera ezetsi dela ulertuko da.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du onuradunen eta emandako diru-zenbatekoen zerrenda.

12. artikulua.– Prestakuntza-plana gauzatzea.

1.– Zer prestakuntza-plan egikaritzeko eskatu den diru-laguntza, bada plan horiek egikaritzera bideratuko da emandako diru-laguntza.

2.– Deialdi honen bidez finantzatutako prestakuntza-planetan bilduta dauden prestakuntza-ekin-tzak erabat doakoak izango dira parte-hartzaileentzat.

3.– Ekintza edo talde bakoitza hasi baino bi egun lehenago ekintza emateko tokiaren, ekintzaren arduraren hartu duen erakundearen, eta taldea edo ekintza gauzatzeko egunaren eta ordutegiaren inguruko datuak jakinarazi beharko ditu.

Bigarren prestakuntza-eguneko gehieneko epearekin, parte-hartzaileei buruzko datuak jakinarazi beharko dizkio titularrak Hobetuzi.

Ikastaldia amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean, titularrak jakinarazi beharko du zein diren amaitu duten parte-hartzaileak, eta ikastaldiari buruzko informazioa itxi beharko du.

Betebehar horiek betetzeko, Hobetuzek aplikazio bat jarriko du titularren esku, bere webgunean ([www.hobetuz.eus](http://www.hobetuz.eus)). Horrela adierazitako informazioak ez du aldaketarik onartuko taldea edo ekintza amaitzen denetik zenbatzen hasi eta 30 egun igaro ondoren, eta horixe izango da prestakuntza-plana gauzatu dela justifikatzeko kontuan hartuko den bakarra.

Betebehar horiek ez badira betetzen, prestakuntza-ekintza ez egindakotzat hartuko da, planaren justifikazioaren ondorioetarako.

4.– Titularrek ekintza presentzialetan eguneroko bertaratze-partea egin beharko dute, eta irakasleak eta parte-hartzaileek sinatu beharko dute.

Teleprestakuntzako prestakuntza-ekintzen kasuan, berriz, titularrak prestatu beharko du parte-hartzaile bakoitzaren gainean egindako jarraipen-kontrolari buruzko dokumentazioa.

5.– Parte-hartzaile bakoitzari prestakuntza-ekintzan parte hartu izanaren ziurtagiria emango zaio, Hobetuzek ezarritako ereduaren arabera, eta bertan gutxienez adierazi beharko dira ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, modalitatea, hasteko eta amaitzeko eguna, eta jasotako prestakuntza-orduak, hala dagokionean ordu presentzialen teleprestakuntzako kopurua adieraziz.

Kualifikazioen Sistema Nazionalaren Katalogo Modularrari loturiko prestakuntza-ekintzetan, eta prestakuntza-ekintza gainditu duten pertsonen dagokienez, parte-hartzaileei emango zaien ziurtagiria, Hobetuzek eska dezakeena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako prozeduraren arabera emango da.

Parte-hartze ziurtagiriak parte-hartzaileei eman beharko zaizkie, parte hartu duten prestakuntza-ekintza amaitu eta bi hilabeteko epean, gehienez.



6.– Artikulu honen 3. zenbakian adierazten den moduan, ekimen honen bitartez programatzen diren prestakuntza-ekintzen hasieraren eta amaieraren berri eman beharko du enpresak, eta prestakuntza ekintzak eta haien jarraipena, kontrola eta ebaluazioa modu egokian garatzen direla ziurtatu beharko du, baita ematen den prestakuntza enpresaren eta langileen beharrizanei ondo egokitzen zaiela ere.

Nolanahi ere, onuradunak bere gain hartuko du zuzenean laguntzak behar bezala aplikatzea, eta jarraipen- eta kontrol-erakundeen eginkizunen behar bezalako garapena ziurtatu beharko du.

7.– Diru-laguntza ematearen aldeko ebazpena jaso ondoren, eta behar den aurrerapenarekin, laguntzaren onuradunak eskatu ahal izango du finantzatutako planean aldaketak sartzeko, baldin eta aldaketok finantzatutako ekintzen edukiari buruzkoak edo ekintzak egikaritzeko erari eta/edo epeei buruzkoak badira. Aldaketa-eskaera hori idatziz egingo da, eta behar bezala arrazoitu beharko da. Lanbideko zuzendari nagusiak onartu beharko ditu aldaketa horiek.

Parte-hartzaileen kopuruari edo irakaskuntzaren modalitateari eragiten dioten aldaketak direnean, baimendu ahal izango dira baldin eta ez badute murrizten hasierako eskaeran lortutako balorazio teknikoa.

### 13. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

1.– Diru-laguntzaren ordainketa egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu aurretik egingo du Hobetuz fundazioak, ordainketa bakoitzaren aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko eta/edo Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak, hain zuzen ere.

2.– Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da, honela:

a) Diru-laguntza osoaren % 50eko lehen ordainketa bat izango da Hobetuzek lehen prestakuntza-ekintza hasi izanaren ziurtagiria jasotzen duen unean. Lehen ordainketa hori 180.303,64 eurotik gorakoa bada, titularrak bankuko abala aurkeztu beharko du, ebazpenarekin batera adieraziko diren jarraibideak kontuan izanik, edo bestela plana gauzatzekoan dagoeneko sortutako gastuen justifikazioa, justifikatu gabeko gainerakoak kopuru hori gainditzen ez badu.

b) Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerakoari dagokiona, Hobetuzen justifikazio-memoria aurkeztu eta dagokion azken likidazioa onartzen denean.

### 14. artikulua.– Kostu finantzarriak eta egozpen-irizpideak.

Honako hauek hartzen dira zuzeneko kostutzat, prestakuntza-ekintza bakoitzeko bananduta:

a) Enpresatik kanpoko zerbitzuak kontratatzeari dagozkion kostuak.

b) Prestatzaileen edo barne-prestatzaileen kostua.

c) Material suntsigarriaren kostua, babesteko eta segurtasuneko materiala barne.

«Teleprestakuntzaren» kasuan prestatzaileen eta parte-hartzaileen artean erabilitako komunikabideei egotzi dakiekeen kostuak dira finantzarriak, ekintzaren guztizko kostuaren ehuneko 10eko gehienekoraino.

d) Material didaktikoen kostua.

e) Prestakuntza-fasean dauden langileen aseguruak. Gastu horiek prestakuntza-ekintzen araberaren behar bezala xehatuta aurkeztu beharko dira eta egoztearen parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta egingo da.

f) Amortizazioak, prestakuntza-ekintza bakoitzari egotzi beharreko proportzioan, eta instalazio eta ekipamenduen alokairuak, prestakuntza-ekintzen garapenari egotzi beharrekoak.

Halaber, zeharkako kostuak ezin izango dira egindako eta justifikatutako prestakuntza-jardueraren kostu osoaren ehuneko 10 baino handiagoak izan.

Bestalde, enpresek programatutako prestakuntzaren antolaketaren kostuak finantzatu ahal izango dira, baldin eta kanpoko entitate baten esku uzten badute antolaketa hori. Kostu horiek ezingo dute gainditu prestakuntza-jardueraren kostuen ehuneko 10.

Kostu hori behin bakarrik egotziko zaizkio finantzatutako proiektu orokorrari.

Industria-inbertsio ezohiko edota estrategikoetatik eratorritako prestakuntza-ekintzetan, eta betiere langileen kualifikazioa badakarte teknologietan edo produkzio-prozesu berritzaileetan, EAetik kanpora egin behar badira Euskadik arlo horretan duen prestakuntza-eskaintzaren frogaturiko gabeziaren ondorioz, langile horiek bidaiak edota egonaldiak sorturiko zeharkako kostuak ere kontuan hartu ahalko dira.

15. artikulua.– Diru-laguntzen justifikazioa eta likidazioa.

Diruz lagundutako Prestakuntza Plana osatzen duten prestakuntza-ekintzak egikaritzean sortutako kostuak justifikatu beharko dituzte onuradunek. Horretarako, deialdi honetan bilduriko kostu finantzarriak eta egozpen-irizpideak hartuko dira kontuan, eta halaber, baterako finantzaketa pribatuari begira, Prestakuntza Planeko parte-hartzaileen langile-arloko kostuak, 651/2014 zenbakiko Erregelamenduaren (EE) 31. artikulua ezarritakoaren arabera. Fakturen edo zuzenbidean baliozkoak diren froga-dokumentuen bidez justifikatuko dira kostuak. Dokumentu horiek nahikoa xehetasunez banandu beharko dituzte azalpenak funtsak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeko eta prestakuntza-ekintza bakoitzari egotzitako kostu finantzarri guztiak identifikatzeko.

2.– Laguntzen likidazioa modu proportzionalen egingo da, amaitu dituzten parte-hartzaileen kopurua eta egindako ikastorduen kopurua aintzat hartuta, prestakuntza ekintza bakoitzerako ezarritako eta onartutako modulu ekonomikoen arabera (kostu/ ordu/ ikastaldi).

Prestakuntza gauzatu ondoren, diru-laguntza zehaztu ahal izateko, ekintza presentzialetan pertsona batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da baldin eta prestakuntza-ekintzaren iraupenaren ehuneko 75ean bertaratu bada. Halaber, teleprestakuntzako modalitatean emandako prestakuntza-ekintzetan, pertsona batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da baldin eta ikaskuntzaren jarraipena egiteko aldizkako kontrolen ehuneko 75 egin baditu eta teleprestakuntzari buruzko gainerako betekizunak bete baditu. Betekizun horiek Hobetuzen webgunean argitaratuko dira deialdia EHAAan argitaratzen den egun berean, onuradun eta parte-hartzaile guztiak jakitun egon daitezen.

3.– Azken likidazioa egiteko, onuradunak honako hauek bete eta Hobetuzera igorri beharko ditu Hobetuzen web-orrietan eskuragarri dauden eredu normalizatueta, gehienez ere 2017ko irailaren 15erako:

a) Egindako prestakuntza-ekintza bakoitza amaitu (egikaritu) izanaren ziurtagiria, eta bere garaian, hasiko zela jakinarazitako ekintzari buruzkoa.

b) Deialdi honetan ezarritako kostu finantzarrien eta egozte-irizpideen arabera, diruz lagundutako prestakuntza-ekintzei buruzko kostuak gutxienez ziurtatuko dituen dokumentazioa.

c) Deialdi honetan aurkeztu gabeko ekintzak direla-eta estatuko sisteman egindako hobarien ardurapeko aitortpena, EAEko lantokitara atxikitako langileei dagozkien ekintzak betiere.

Prestakuntza Planaren likidazioa egitekoan, eta subentzionaturiko proiektuari eslehi dakiokeen behin betiko zenbatekoa kalkulatzeko aldera, Hobetuzek kontuan hartuko du EAEko langileei dagozkien 2016. urterako estatuko ereduaren enpresa bakoitzerako ezarritako hoberi gisa emateko gehieneko kopurua, eta enpresari hoberi gisa benetan eman zaion diru-kopurua etengabeko prestakuntzako azalpenagatik 2016ko ekitaldi honen barruan eta langile horientzat, eta plan bakoitzari dagozkion azken diru-laguntzatik estatuko sisteman kontsumitu gabeko kreditu kopurua deskontatuko da.

d) Hornitzaileen aukeraketak ekonomia- eta eraginkortasun-irizpideei erantzun diela egiaztatzen duen dokumentazioa, baita gutxienez hiru eskaintza eskatzeko betebeharra bete izana egiaztatzen duena ere, kontratuen zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean.

e) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza edozein modalitatetan ematen duten erakundeek erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko dute, non adieraziko baitute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari aurkeztu diotela emandako prestakuntza ebaluatzeari buruzko dokumentazio guztia (dokumentazio horretan bildu egingo da ikasleek lortutako emaitzak, ebaluazio-txostenak eta -aktak.), hau da, profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko araudian eskatzen den dokumentazioa.

4.– Egikaritze-ziurtagiriak behar bezala bete eta aurkezten dituzten parte-hartzaileak bakarrik hartuko dira aintzat, betiere alde aurretik deialdi honen 12.3 artikuluko parte-hartzaileen zerrendan bilduta behar dutela aintzat hartuta.

5.– Aurkeztutako agiriak aztertu ondoren emango da diru-laguntzaren azken likidazioko ebazpena.

Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, dagozkion itzulketa-espeditzea izapidetuko da, deialdi honetako 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

6.– Emandako laguntzaren ondorioetarako egin diren ordainketen ordainagiri originalak aurkeztu beharko ditu onuradunak, edo, horiek ezean, fotokopia konpultsatutako aurkeztutako dituen behin betiko likidazioa jakinarazi eta hurrengo 20 egunetan.

7.– Diru-laguntzaren onuradunek 4 urteko epean gorde beharko dituzte, diru-laguntzaren amaierako likidaziotik hasita, bai diru-laguntzaren oinarri den jarduera gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak, bai eta jasotako funtsen erabilerari buruzko ziurtagiriak ere.

Diru-laguntzaren onuraduna epe hori amaitu baino lehen desagertzen bada, aipatu dokumentazioaren kopia bidali beharko du Hobetuzera desagertu baino lehen.

16. artikulua.– Laguntza-eskubidea eskuratzeko eta eskubide horri eusteko betekizunak.

Laguntza jasotzeko eskubidea eskuratu eta horri eusteko, onuradunak honako betebeharrak hauek bete beharko ditu:

– Hala eskatuta, aurreko deialdietan jasotako kopurua itzuli izana.

– Hobetuzi jakinarazi beharko dio enpresa eskatzailea edo enpresa parte-hartzaileak legez, hitzarmenez edo beste edozein xedapenez behartuta ote dauden diru-baliabideak eskaintzera prestakuntza egiteko. Kasu horretan, laguntzak ez du esan nahiko horretarako eskainiko diren diru-baliabideak murriztu behar direnik.

– Laguntza jaso duen prestakuntza-jarduera deialdi honetako eta EAeko Etengabeko Prestakuntzako Lanbide arteko Akordioko oinarri, baldintza eta betekizun formal eta materialen arabera egitea. Kontzeptu horregatik esleitutako funtsak ezin izango dira berau ematera bultzatu duten helburuetarako ez diren gauzetan erabili.

– Hobetuzen aurrean jarduera egin dela egiaztatzea, baita laguntza ematea edo gozatzea zehaztuko duten betebeharrak eta baldintzak bete direla ere. Horretarako, dagozkion elementu justifikatzaileak aurkeztuko dituzte, eta prestakuntza-ekintzari buruz eskatuko zaizkien datuak eta dokumentuak aurkeztuko dituzte prestakuntza-ekintza horiek amaitu ondoren; horrenbestez, ekintza egin dela, emandako finantziarioa erabili dela, eta lortutako emaitzen ebaluazioa egin dela behar bezala egiaztatu ahal izango da.

– Argitalpenetan edo onarturiko ekimenaren bestelako komunikabide eta hedabideetan prestakuntzako ekintza estrategikoei laguntzeko 2016ko deialdian eginiko ekintzak direla jasotzea, betiere horietan Eusko Jaurlaritzaren, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hobetuzen logotipoak bilduta.

– Hamazazpigarren oinarrian ezarritako kontrol eta jarraipenerako jardunak onartzea.

17. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

1.– Hobetuzek, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako erakunde eskudunek burutzen dituzten egiaztapen- eta kontrol-jardunak onartuko dituzten onuradunek, lokal eta instalazioetarako sarbidea eta parte-hartzaileekin, Langileen Lege Ordezkaritzako kideekin eta elkarrizketatzea beharrezko iritzitako gainerako pertsonekin harremanetan jartzea ahalbidetuz.

2.– Kontrol-jarduera hauek onartzeko betebeharrak orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

– Finantzaturiko ekintzak egikaritu izanari edo ekintza horien bideragarritasunari buruzko informazioa ematea, baita jarraipena egiteko eskatzen zaion dokumentazioa betetzea eta igortzea ere; dena dela, 10 eguneko epea izango du egiten diren errekerimenduei erantzuteko. Errekerimendu horiek estatuko ereduaren barruan hobaria jaso duten ekintzei buruzkoak ere izan daitezke.

– Hobetuzi jakinaraztea beste Erakunde batzuetatik eratorritako diru-laguntzak edo laguntzak –deialdi honek diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak– eskatu direla edo eskuratu direla.

3.– Auditorien eta Ikuskaritzen Urteko Plan bat ezarriko du Hobetuzek, deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta diruz lagundutako ekintzak benetan zein baldintzatan egikaritu diren aztertzeko. Plan horren baren sartuko dira Hobetuzek egingo den arriskuen analisiaren ondoriozko estatistika-irizpideen arabera aukeratzen dituen espedienteak. Ikuskatze Planean bilduko dira, halaber, behar bezala identifikatutako pertsonen egindako eta sinatutako salaketetatik eratorritako jardunak.

### 18. artikulua.– Diru-laguntzak itzultzea.

1.– Jasotako laguntzak osorik edo zati batean itzuli beharko dituzte onuradunek, eta berandute-interesak eskatuko zaizkie laguntza ordaintzen den unetik, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta honako haueetan:

- Laguntzaren helburua edo laguntza emateko agindutako baldintzak ez betetzea.
- Jarduera egin izana eta laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.
- Diru-laguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.
- Jarraipen- eta kontrol-jardunak ukatzea edo oztopatzea.
- Diruz lagundutako ekintzak egikaritzeko baldintzei buruz datu faltsuak ematea, errealitatearekin bat ez datozenak.
- Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebeharrak, baldintza edo betekizun ez betetzea.

2.– Itzultzeko prozedurari Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren idazki bidez emango zaio hasiera, eta idazkia bidaliko dio Hobetuzek laguntzaren onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Horrekin batera, jakinaraziko dio hamabost eguneko epea duela alegazioak edo egokitzeak jotzen dituen egiaztagiria aurkezteko; hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren berme eta itzulketen erregimena arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

3.– Alegazioak aurkezteko epea amaitutakoan onuradunak alegaziorik aurkeztu ez badu edo alegazioak onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak itzulketa eskatzeko ebazpena emango du, eta itzulketa hori ebazpenean adierazitako epean gauzatu beharko da. Horretarako, Hobetuzek dagokion espedientea igorriko dio Lanbideri, eskaera-idazkiarekin eta alegazioekin batera -eta, hala badagokio, alegazio horiek ebazteko proposamenarekin batera. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea gehienez 12 hilekoa izango da.

4.– Borondatezko epea amaitutakoan itzulketa gauzatu ez badu, beharrezko izapideak jarriko dira abian, itzuli beharreko diru-zenbatekoak premiamendu-bidetik berreskuratzeko. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira.

### 19. artikulua.– Datuen tratamendu automatizatua.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, laguntza-eskaera betetzean interesdunak datu horiek Hobetuzen eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren fitxategi informatizatuetan sartzeko baimena ematen duela ulertuko da. Aipatu Legean aurreikusten diren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta aldatzeko eskubideak Hobetuz Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioan (Kale Nagusia 35 - -6.a, 48009 Bilbao) eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan egikari daitezke.

### LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erakunde laguntzaile izendatzea.

1.– Hobetuz-Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioa izendatzen da deialdi honetan arautzen diren laguntzen kudeaketarako eta ordainketarako erakunde laguntzaile, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 52. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aipatutako 52. artikulua dioenez, diru-laguntzarekin edo laguntzarekin loturiko guztiak ematen dituen organoaren kontura eta izenean jardungo du Hobetuz Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak. Haatik, laguntza hori ez da, inola ere, Hobetuzen ondaretzat hartuko.

2016ko irailaren 14a, asteazkena

2.– Laguntzen deialdi hau finantzatzeko funtsak, 2016ko ordainketa-kredituari dagozkionak, emandako laguntzen guztizko zenbatekoaren % 50aren baliokide den gehieneko zenbatekoaz, Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioari transferituko dizkio Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak erakunde laguntzaile denez, dagokion ebazpena hartu ondoren, deialdi honen bidez deituriko laguntzak emanda. Gainerakoa 2017ko ekitaldian transferituko da.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren betebeharrak.

Deialdi honetan zehaztutakoez gain, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 52. artikuluan ezarritako betebeharrez gain, Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak honako betebehar hauek izango ditu:

1.– Funtsak azken enpresa onuradunen artean banatzea.

2.– Laguntzak aplikatu zaizkien prestakuntza-ekintzak egin izana justifikatzen duten agiriak eskatzea eta gordetzea, lau urtez.

3.– Jaso diren funtsak zertan aplikatu diren justifikatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean, 2017ko abenduaren 30a baino lehen, eta honako alderdi hauek zerrendatuta aurkeztea: amaierako onuradunen izen-abizenak, emandako laguntzak, egindako ordainketak eta, oro har, funts horiekin egindako prestakuntza-jardueren memoria orokorra osa dezaketen bestelako datu kuantitatiboak zein kualitatiboak.

4.– Funtsen kudeaketa dela-eta, Eusko Jaurlaritzak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren bitartez egin ditzakeen egiaztatze-jardueren eraginpean jartzea.

5.– Deialdian aurreikusten den ez-betetze kasuren bat gertatuz gero, onuradunei laguntzak itzul ditzaten eskatzea, deialdian bertan ezarritako itzultze-prozedurari jarraituz, behin dagozkien ebazpenak eman ondoren.

**HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Finantzaketa-soberakinen azken likidazioa.

Deialdi honetan arautzen diren laguntzen onuradunek aplikatu ez dituzten finantzaketa-soberakinak eta deialdi honetan aurreikusten den dirua itzultzeko prozeduraren ondoriozko funtsak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuliko dizkio Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak.

**LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Betekizunak eskatzea.

Deialdi honetan ezarritakoari begira, deialdia argitaratu aurretik prestakuntza-ekintzak hasi edo amaitu dituzten eskatzaileek denbora-arrazoiak direla medio bete ezin izan dituzten betekizunak ez dira eskatuko.

Kasu horietan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2015eko urriaren 22ko Ebazpenean ezarritako irizpide orokorrak aplikatuko dira. Horren bidez, Lanbideren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onarturiko deialdia egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2015eko ekitaldirako (2015-10-23ko EHAA).

## I. ERANSKINA

## LEHIARI BURUZKO EUROPAKO ARAUDIA ETA ETE-TZAT HARTZEA

Mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainen (ETE) kategorian enpresa hauek sartzen dira: 250 pertsona baino gutxiagori lana ematen dieten enpresak, eta, gehienez ere, 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena dutenak, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra dutenak.

ETeen kategorian, enpresa txikitzat joko dira 50 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko kopurua gainditzen ez dutenak.

ETeen kategorian, mikroenpresatzat joko dira 10 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 2 milioi euroko kopurua gainditzen ez dutenak.

Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduan (2013-12-24ko EBAO) definituriko «minimis» erregelak estali ditzakeen zenbateko txikiko diru-laguntzen kasuan izan ezik, deialdi honen barruan finantzatuko diren prestakuntza-proiektuak Batzordearen 651/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) ezarritakoari egokituko zaizkio, eta haren arabera laguntza-kategoria jakin batzuk bateragarri deklaratzeko dira barne-merkatuan, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta.

Horregatik, benetako kostu hautagarri eta justifikatuen gutzizkoa, Batzordearen 651/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) definituriko gehieneko intentsitateak eta EAeko lurralde-esparruan aplikatzekoak direnak aplikatzearen ondorio izango da azkenean likidatzen den laguntza. Horiek guztiak jarraian erreproduzitzen den taulan zehazten dira.

	Intentsitatea
Arau orokorra	% 50
Enpresa ertainak	% 60
Enpresa txikiak	% 70
Desgaituak	% 10 gehigarria

Laguntzaren intentsitatea, gehienez, diruz lagun daitezkeen kostuen % 70ekoa izango da.

Ehuneko horiek aplikatuko diren gutzizko kostu hautagarriak kalkulatzeari begira, Prestakuntza Planeko parte-hartzaileen langile-arloko kostuak bilduko dira, Batzordearen 651/2014 zenbakiko Erregelamenduaren (EB) 31-3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hobetuzen finantzaketa ez da beste laguntza publiko batzuekin metatutako, betiere kostu subentzionagarri berei dagokienez, metaketa horrek Batzordearen 651/2014 zenbakiko Erregelamenduan (EB) ezarritakoa baino intentsitate handiagoa eragiten badu.